

{ datorrena } **Isidro ESNAOLA**

Europa dominazio-proiektu bat da, ez besterik

Europarrok harrituta eta suminduta gaude Trumpen administrazio berriaren zakarkeriekin, batez ere nabarmena da bere aliatuekin. Mendekotasun harremanak direla eta, Kwame Nkrumah gogoratu dut, Ghana independenteko lehen presidentea eta afrikar batasunaren defendatzaile sutsua. "Afrikak bat egin behar du" liburuan oso ondo deskribatzen ditu, esate baterako, herrialdea industrializatzeko ahalegin guztiak nola boikotatu zituzten. Bereziki interesgarria da nola idatzi zen independentzia lortu ondoren herrialdea gidatu behar zuen konstituzioa. Britainiarrek xedapen ugari sartzera behartu zuten, eskualdeen arteko desberdintasunak sortuz, herrialdea gobernaezina izango zelakoan. Ez zuten lortu, eta 1966an estatu-kolpe bat antolatu zuten Nkrumah boteretik kentzeko.

Xantaia eta estortsioa izan dira mendebaldeko arma nagusiak antzinatek, nahiz eta europarrak, beraien heziera onekoak, beren mehatxuak eta sabotajeak iritzi publikotik kanpo gera zitezen saiatzaren ziren. Eta beste erremediorik ez zegoenean, indar erakustaldiak iristen ziren, prentsaurreko bat baino askoz gogorragoak. Hain ohikoak bihurtu ziren, non kanoi-ontziko diplomazia bezala bataiatuak izan baitziren: "Edo nire nahietara zatoz, edo zure herria kanoikadaz suntsituko dut".

Europako agintariak ez daude horretara ohituta. Are gutxiago beraien zapalduak izatera, eta, zer esanik ez, jendaurrean. Batez ere orain, askoz finagoak bihurtu direlako. Oso gutxitan bidaltzen dituzte ontzi militarrik; aski izaten dute NDFko mandatariak edo ahalguztidun enbaxadore batek bisita bat egitea, edo, beste guztiak huts egiten badu, mertzenarioak finantzatzea. Haien xantaiak eta mehatxuak beti geratzen dira atzean, maila diskretuan: "Ez omen dute

esku hartzen", ezta boterea armen bidez hartzea sustatzen dutenean ere. Zentzu horretan, Trumpen Administrazioak ez ditu itxurak gordetzen, baina orain arte mendebaldeko herrialdeek egin dutena egiten jarraitzen du. Zakarkeria mendebaldeko boterearen ahultzearen ondorioa da. Orain botereari eusteko ez da aski mendekotasun harremanak ezkutatzeko edo apaintzea: biolentziak zuzenean hitz egin behar du.

Horri dagokionez, Samuel P. Huntingtonek historiaren amaieraz eta zibilizazioen arteko talkaz tontakaria asko idatzi zituen, baina konturatu zen gauza garantzitsu batez: «Mendebaldeak ez zuela mundua irabazi bere ideien, balioen edo erlijioaren nagusitasunagatik (...), antolatutako indarkeria aplikatzean zuen nagusitasunagatik baizik». Eta jarraian gainera-

Eta hori da europarroi gertatzen zaiguna: asmatu ditugun justifikazioak sinetsi ditugu, eta ahaztu egin dugu munduan dugun posizio pribilegiatuak indarkeria organizatuarekin baino ez duela zerikusia

tu zuen: «Mendebaldekoek sarritan ahazten dute hori. Mendebaldekoak ez direnek, inoiz ez». Eta hori da europarroi gertatzen zaiguna: asmatu ditugun justifikazioak sinetsi ditugu, eta ahaztu egin dugu munduan dugun posizio pribilegiatuak indarkeria organizatuaren aplikazioarekin baino ez duela zerikusia.

Eta ez dira falta adibideak, baita berriak ere, hala nola pandemia garaian txertoen patenteen kudeaketa edo Palestinako genozidioan Israeli emandako babes. Beste aldera begiratu dugu eta ahaztu egin zaigu Europa dominazio-proiektu bat dela, ez besterik. Eta Europak koherentziaz defendatu dituen balio bako-
rrak burtsan kotizatzen dutenak direla. •